

Esp. Kod./Cód. Expte.: 2020ES020001
Erref./Ref.:

659/2020 DEKRETU ZK.

TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEAREN FEDERAZIOA Euskaraldia egitasmoa Hondarribian proiektua garatzeagatik, dirulaguntza izenduna ematea.

TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEAREN FEDERAZIOA, Euskaraldia egitasmoa Hondarribian proiektua garatzeko, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu du:

- ◆ Dirulaguntza eskaera normalizatua.
- ◆ Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- ◆ Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- ◆ Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- ◆ Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- ◆ Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitortpena.

Idazkaritzak emandako aldeko txostena ikusirik eta era berean Kontuhartzaitzak oharpenekin adostasunez fiskalizatutako 45-1/2020 eta 45-2/2020 txostenetan AD586/20 erabiliaren kargua aurrekontu kontsignazioa badagoela adieraziz emandako eginbidea ikusirik,

Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBAZTEN DU:

Lehenengo.- Euskaraldia Hondarribian proiektua garatzeagatik, zuritu beharreko, **21.037,00 €**ko Dirulaguntza izenduna ematea.

Bigarren.- Hondarribiko Udalaren eta **TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEAREN FEDERAZIOAK** arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Hirugarren.- Dirulaguntza, ondoan zehazten diren epeetan ordainduko da:

1. % 75,00, **15.777,75 €** hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.
2. % 25,00, **5.259,25 €** proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.



Hondarribiko
Udala

Laugarren.- Dirulaguntzaren gastua, **AD-586/20** erabiliaren kargura izango da.

Hondarribian, 2020ko martxoaren 11n
ALKATEA/El Alcalde,

Izp./Fdo.: Txomin Sagarzazu Ancisar